

TARTEKO MAILA 1

GAITASUN BAKOITZA NEURTZEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

IDATZIAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Gai ezagunen edo ikaslearekin zerikusia dutenen asmo komunikatiboa, ideia esanguratsuak, informazio garrantzitsua eta erregistroa - estandarraren barruan - harrapatzeko. Gai hauen (hizkuntza ikasteko material egokiak, lan eskaintzak edo iragarkiak, liburuxka turistiko eta komertzialak, informazioak eta jarraibide errazak, berriak, informazio ez espezializatua eta kontakizunak...) edukiaren inguruko hipotesiak egiteko.

AHOZKOAREN ULERMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Egoeraz, testuinguruaz, ikusten denaz eta ezagutzaz baliatuta, ideia nagusiak eta komunikazio asmoak atzeman eta euren edukiaren inguruko hipotesiak egiteko. Argi eta erregistro estandarrean emateaz gain, berriro entzun edo zalantzak argitzeko aukera duten testuak izango dira: elkarrizketak, informazioak, jarraibideak, azalpen errazak, mintzaldiak, eztabaidak eta kontakizun txikiak.

IDAZKETA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Aurreikusitako funtzioak betetzeko, gai ezagunen inguruko testu errazak eginez: galdeketak, eskemak, eskutitz pertsonalak eta formalak, jarraibideak, testu sozialak, konpromisoak, lan eskariak, narrazioak, deskripzioak eta aurkezpen errazak.

MINTZAMENA

Ikasleak ikasturteari dagozkion trebetasunak bereganatzen dituenean, gai da:

- Berbalagunen artean erregistro estandar formala zein informala erabiliz, modu eraginkorrean eta egokian parte hartzeko. Hau egingo du hainbat gai ezagunen ohiko jarduerarik gehienetan: informazio aurkezpenak, azalpenak, deskripzioak, narrazio errazak.